

...eta **kitto!**

735 zkia. 2010-X-8

ASTEKARIA

TOKIKOM



Eibarko musikariak... ...munduari begira

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Josu Torrealday

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GOI ARGÍ / GOI GARBI.- Egun garbia, oskarbi. "Eguna zabaldu ezkerik dago goi argi". "Goi garbi ederragaz eguna zabaldu dau".

GOIBEL.- Eguraldi lainotua. Eibarren gehiago erabiltzen da oriatu. "Goibel edo odiatu dago gaur egun guztian".

GOIERRE.- Eguzkirik ez dagoela bero handia egiten dueneko giroa. "Izerdi patsetan heldu naiz etxera goierre honekin".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Rolak alderantzikatzen ari dira. Patriarkalismoari aurre egiteko, orain gizon batzuk femeninoagoak dira, irudia gehiago zaintzen dute eta, era berean, emakumeak gizonen eskema, gustu eta sexualitatera egokitzen ari dira. Geratzen zaigun azken aukera da ordena sinbolikoa aldatzea, eta orduan ez genuke berdintasunaz hitz egingo, askatasunaz baizik"

(Victoria Sendón, filosofo feminista)

" Ez da berdín esatea kristautasuna dela munduko erlijiorik inozoena edo Islama dela. Lehenarekin barre egiten dugu; bigarrenarekin, ordea, tentuz ibili behar dugu. Ez dute nahi islamaz hitz egitea eta eraso egiten dute, eta mehatxu, jendea isilarazteko. Ez umorea, ez askatasuna, ez daude euren balioen artean; beldurra zabalzea da euren helburu bakarra"

(Michel Houellebecq, idazlea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

NEREA AZPIAZU

Atzo arratsaldian emon eban ezagutzera Miguel López de Gereñu zana ordezkaturako daben zinegotzi barrixa: Nerea Azpiazuk hartuko dau aurreko hillian hil zan PSE-EE alderdiko zinegotzixaren kargua. Hala emon eban ezagutzera udaletxian Miguel de los Toyos alkatiak eta Eneko Andueza Eibarko PSE-EEko idazkari nagusixak, horretarako bereziki antolatutako aurkezpen ekitaldixan. Honi buruzko informaziño osua eta gaurkotua gure web orrihan irakorri zeinkie (www.etakitto.com), aldizkarixa inprentan egualako aurkezpena egin danerako.

JUBILAUENDAKO EUSKERIA

Biztu koordinadoriak eta Udal Euskaltegixak bereziki nagusixendako preparaturako euskera ikastaria antolatu dabe. Hillaren 19xan hasiko da ikastaria eta klasiak martitzen eta eguenetan izango dira, 10.00etatik 12.00xetara. Jubilauean etxietan emon leike izena.

LARRIALDIXETARAKO

Gizartekintzak aditzera emon dabenez, Gizarte- larrialdixetarako laguntasunak eskatzeko epia urriaren 20xan amaituko da eta interesa dakenak lehenbailehen juan biharko dira eskaerak egittera.

Gerra Zibilla eta Errepublikia goguan

ASTE HONETAN PRESENTAU DABE UDALETXIAN "MEMORIXA HISTORIKUA" DEITTU DABENA udal ordezkariak eta proiektua egittiaren arduria dakan STOA enpresako Jordi Padrók eta Aritz Arrizabagalak. Aurkezpenian esandakuari jarraituta, *"Errepublikia, Gerra Zibilla, Eibar eta demokraziako balorik"* ardatz izango dittuan proiektua ez da toki bakarrian garatzekua: herri barruan erreferentzia puntuak Portaleko museua bera, udaletxia eta Txaltxa Zelaixa izango lirakez eta, herrittik kanporakua, barriz, trintxera inguruak eta Arrate eta bertako kolonixia.

Padrók azaldutakuaren arabera, *"museua informaziñua zabaltzeko erreferentzia puntua izan bihar da eta, horretarako, ikusentzunezko eta bestelako elementuekin osatuko genduke gaur egunian daguana. Bestalde, udaletxia bera*



Memorixa Historikuaren proiektuaren bultzatzaillak aurkezpen egunian. / SILBIA HERNANDEZ

orduan sasoiko erreferente inportantia da, bestiak beste han aldarrikatu zalako II. Errepublikia. Mendixan daguzen trintxera eta bestelakuen inguruan, barriz, seiñalizaziñua eta informaziño-puntuak hobetuko gendukez eta, hori bai, Arrateko kolonixiari interpretaziñorako zentro izateko bidia zabalduko litxakixo, ikasle-taldiak eta gaixaren gaiñeko kontuak ikastaro berezixetan lantzeko".

Proiektua 3 fasetan garatzeko proposamena egin dabe: 2011-12 bittartian garatuko litzake lehelengua, 2013-14 bittartian bigarreña eta hirugarreña, barriz, 2015-16 bittartian. Dana dala, 100 bat orrialdetan idatzitakua laburtu eta egokitzeko konpromisua hartu dabe udalian eta, ondoren, Ego Ibarrenaren webguniaren bittartez herritarren artian zabalduko dabe, jendiak ekarpenak egitteko aukeria euki deixan.

Esperientzia Eskola hasteko prest


AURTEN DEBABARRENEKO ESPERIENTZIA ESKOLAREN ZAZPIGARREN EDIZIÑUA IPIÑIKO DABE MARTXAN, hillaren 22xan Armerixa Eskolan egingo daben ekitaldixarekin. Debabarreneko Esperientzia Eskola Ikasten Esperientzia Eskolaren ikasle ohiak osatzen daben alkatiak antolatu eta Eusko Jaurilaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sortutako proiektua da, 50 urtetik gorakuendako pentsautakua eta ikasturtian hainbat gai jorrazteko aukeria izaten dabe parte hartzera animatzen diranak, hitzaldi, ikastaro eta bestelakuen bittartez. Horrerik laguntzeko ekintza osagarriak antolatzen dittue (bisita kulturalak, zine-forumak...). Kurtso amaieran ikasliak taldeka proiektuak aurkezten dittue



eta diploma bana jasotzen dabe. Ikasturte honetako klasiak hillaren 26xan hasi eta ekañian amaituko dira. Astian hiru egunetan (martitzen, eguazten eta eguenetan) izaten dira klasiak, 09.30xetatik 12.30xetara. Oindiok izena emoteko aukeria badago, Debabarreneko udaletxietan. Argibide gehixagorako 695 788 936 eta 626773676 telefonuetara deittu leike edo esperientziaeskola@adindu.com helbidera idatzi.

JOSU ASTIGARRAGA IBAZETAren
2. URTEURRENA (2008-X-8)

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta 2. urteurreneko elizkizunera joan zinetenoi.





Maridajia Krabeliñen

**ZAZPIGARRENEZ EGINGO DIRA EHIZA ETA ARDAUA EZKON-
TZEKO AFARI-JARDUNALDI BEREZIXAK** Krabeliñ hotelian, be-
tiko moduan azaroko barixakuetan. Remelluri, Rioja Alta, Vintae
eta Marqués de Murrieta arandegixak hartuko dabe parte eta Je-
sús Artolazabali omenaldixa egingo detse sanandresen bueltan.
Erretserbak hotelera bertara juanda egin biharko dira, urrixaren
13ko 11.00etatik aurrera.




Zero Pobrezia kanpaina

**EIBARKO ELKARKIDETZARAKO MAHAIXAK MUNDU MAI-
LLAN GARATZEN DAN ZERO POBREZIA** kanpainaiekin bat
egingo dau, azken urtiotan egindakuaen bidetik. Hillaren 17xan
pobreziarekin amaitzeko naziñoarteko eguna izaten da goguan
eta, horren harira, urriaren 13tik 17ra bittartian sensibilizaziñorako
jarduerak garatuko dira gurian, herriko gobernuz kanpoko alkartiak
batzen dittuan mahaixaren eskutik. Informaziño zabalagua jaso-
tzeko www.pobrezacero.org helbidera jo leike.

Berdintasun Zerbitzuaren esker ona

**EVA JUEZ UDALEKO BER-
DINTASUN ZERBITZUKO
ARDURADUNAK OSO MODU
POSITIBUAN BALORAU** nahi
izan dau emakumien kontrako
indarkerixia salatzeke more-ko-
loreko puntuak izan daben ha-
rrieria, bereziki herriko dendari
eta tabernarixen aldetik. Izan
be, ixa urtebete pasau da aitta-
tutako kartelak argittara emon
eta banatu zittuenetik eta oin-
diok be hainbat tokittan ipiñitta
segitzen dabe. Horrekin eraso
sexisteri aurre egittia billatzen



eben kanpainaia abaiarazi ebe-
nian eta, Juezen berbetan,
"jendiak gero eta sensibilidade
haundixagua erakusten dau"
gai horren inguruan. Azaruan
gogoratuko da mundu maillan
emakumien kontrako indarkeri-
xari aurre egitteko eguna.

anzorik anzo



Ardantzako geralekua formia hartzen

**Herrixaren bihotz-bihotzian dagan Ardantzako apeaderua
datorren urtiaren hasieran martxan ipintzeko moduan izan-
go dala aurreikusten dabe agintarixak, "biharrak daroiaten
erritmua ona" dala ikusitta. Euskal Trenbide Saretik igorrittako
txostenak jasotzen dabenaren arabera, "estaziño barrixak bere
punturik zabalenian luzeeran 80 metro eta zabaleran 6 izango
dittuan nasa eukiko dau eta, trenbide azpixon sarrerria egiñ ahal
izateko oiñ artekua baiño altuagua izango da". Hain zuzen be
metro erdi gehixagoko altueria emongo detse.**

Sarrerria Juan Gisasola kaliaren parian eukiko dau eta eskillarak er-
abillitta zeñ igogailluan sartu edo urten ahal izango dau jendiak.
Nobedadietako bat (eta modu berian geralekua barritzeko biharrak
egittia eragin daben arazoi nagusixena) trenbidia bittan banatuta
geratuko dala da: udaletxiaren atzeko partian, Mekola aldian
dagan tuneletik hasi eta Ego-Gaiñ eta San Andres pasialekuaren
arteko bidegurutzerañño, 180 metrotan trenak norantza bixetan
ibiltzeko aukeria eukiko dabe biharrak behiñ amaitzen dittuenian.
Horrekin batera, eta Amañako adibidiari jarraituta, trenbidia estali
eta pasiatzeko tokixa preparauko dabe gaiñian.


eibar kaleka

Ibur Erreka kalia

Eibarrek Bizkaiarekin egitten daben mugan, Olarriagatik
urtetzen daben Ibur errekatxuak emoten detsa izena iñor bizi ez
dan kaliari. Etixerik ez dagan arren, baiña, jarduera industrialak
badaka tarterik eta daguizen taillarretatik aparte, gure herriko
beste lantegi batzuetarako kokalekua izan leike etorkizunian.

Pegora kopurua: 0.

Erroldatutakoak: 0



asteko

31 + 22

datua

31 adjudikatariorak dira eta beste 22ak ordezkioak. Horiek izan dira uztailean egindako Asola-Igartzako zozketan zortea izan eta gero, etxearen jabe egitea errefusatu dutenak. Etxebizitza horien prezioa 108.000 eta 138.000 euro artean dago.

Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendaritza laga dau


14 URTEZ UNED-BERGARA IKASTETXEKO ZUZENDARIXA

IZAN DAN JUANJO ALVAREZEK urriaren 1ian laga eban kargua. Erabagixaren barri emoteko oharrian diñuanetz, *"nere bizitza personal eta profesionaleko proiektoz, ilusiñoz, biharrez eta ikasketa personalez betetako etapiarekin holan amaituta"*. Bidian aldamean izan dittuaneri eta kudeaketan lagundu detseneri eskerrak emotiarekin batera, aurrerantzian zuzendarixa izango dana emon eban ezagutzera bere agurrian: Unibersidadian lankide izan daben Iñaki Esparza Zuzenbide Prozesaliam Katedraduna EHU.



Sarixa banatu dabe Benicoban

CENOR TALDIAK BERE UDAKO ESQUORRIRIXAN LATA-HOZKAILLU BATEN ZOZKETIA egin dau eta sarixa Eibarrera etorri da oinguan, Juan Gisasola kaleko Benicoba elektragaillu dendak banatu dau eta. Erretra-



tuan zozketia irabazi daben Ione Gallego ikusi geinke, pozik sarixa jasotzera jua zan momentuan.


200 euro Errebalean

Bestalde, Errebalgo azokan bezeruen artian hillero egitten daben zozketan, 200 euroko sari nagusixa Maria Luisa Suárezendako izan da. 25 euroko balixua daken txartel bana eskuratu dabenak, barriz, jarraixan aittatzen ditugunak dira: Nati Elkoroiribe, Pedro Trueba, María Gallardo, Idoia Albeitia, Elisa Parada, Pedro Aranzabal, Begoña San Martín, Roberto Altuna, Javier Azkarate, José Luis Laskurain, Carmen Prado eta Ana Ormaetxea. Zorionak daneri!

Turismuari bultzadia emoten

GURE ESKUALDIAN TURISMO ARLUAN BIHARRA EGITTEN DABENENDAKO ZORIONEKO ASTIA izan da hauxe, errekonozimendu bikoitza jaso dabe-eta. Batetik Mutriku, Deba eta Zumaiako Udalak Europako Geoparkien Sarean sartzeko presentau eban kandidaturia onartu dabe Grezian ospatu barri daben kongresuan. Euskal Herrixa ordezkatzera eta proiektuaren gaiñeko presentaziñua egittera haraiño jua ziran hiru lagunak aurreko asteburuan jaso eban barri pozgarrixa.

Eta, bestetik, Debegeesak eta Euskalit fundaziñuak atzo presentau eban Kalidade Turistikuaren Praktika Egokixen programaren barruan, gure eskualdian turismuaren inguruan biharrian diharduen 20 bat enpresa eta establezimenduri diploma bana emon zetsen, aittatutako programan parte hartu eta kalidadezko zerbitzua eskintzen dabela moduren batian errekonozitzeko. Diplomía eskuratu daben artian Eibarrek ordezkari bakarxa euki dau: Krabelin hotela.



Mutriku, Deba eta Zumaiako Europako Geoparkien Sarian onartu dittue. / KOLDO MITXELENA

Itsueri moldatutako semaforuak

AURREKO BARIXAKUAN ARRAGUETA KALIAN ONCEK DAKAN BULEGUAN PRESENTAU EBEN honezkero Eibarko hainbat semaforotan

martxa dagan sistema barrixa: itsuak edo gitxi ikusten dabenak bidieren alde batetik bestera pasatzeko orduan semaforuetan horren lagungarrixa egitten jakuen seiñale akustikua aurrerantzian ez da etenbarik martxa egongo; bakarrik euretako batenbat semaforora gerturatzian, urrutiko agintea erabillitta ipiñiko da martxa eta, jarraixan, atzera beixildu egingo da. Sistema barrixa presentatzen ONCE alkatereko ordezkari-

xak egon ziran, Miguel de los Toyos alkatiak lagunduta eta, esplikaziño batzuk buleguan emon ondoren, Ibarkurtzeko semaforuan sistemía martxa ikusteko aukeria izan genduan prentsaurrekora juandako kazetarixak. Horretarako, alkatiak lehelengo agintía emon zetsan Fernando González Egaña eibartarrari. ONCE-ko afiliatuak Eibarko bulegora jua biharko dira agintailua eskatzera (duan jasoko dabe). Oñ arte 12 semaforotoan (6 bidegurutzetan) ipiñi dabe sistema barrixa.



Alkatiá ONCEko ordezkariexekin urrutiko agintía erakusten. / SILDIA HERNANDEZ


Astelehenian izan zan animalixen eskubidien aldeko naziñoarteko eguna. Azken aldixan zezenen inguruan neurrixak be hartu izan dittue, legalki gaiñera, eta ehizaren gaixa be betidanik egonda hor. Bestalde, etxietan daguazen animalixen edo maskoten eskubidiak dagoz, batzuen ustez personak baiño hobeto zainduta.

Animalixen eskubidiak errespetatzen dittugu?



ALBERTO ERIZ
38 urte
biltegizaiña

Personekin egin dan moduan, animalixen eskubidiak zeintzuk diran hasi biharko giñake zihazten. Behiñ hori eginda, erabagixak hartzeko ordua izango zan. Batzuetan emoten dau animalixa batzuk, espezien arabera, beste batzuk baiño eskubide gehixago edo gitxiago dakela-eta.



JUANI NOGALES
67 urte
jubilaua

Zezenen kasuan, esaterako, ez jata bape ondo begintantzen egi-tten dabena, animalixa holan su-friaraztia. Baiña horren atzian in-teres asko dagoz. Maskoten ka-suan, bestalde, animalixak hartu eta gero bihar dan moduan zain-zen ez dittuela ikusten dot.


CESAREO AZPILIKUETA
73 urte
jubilaua

Animalixa batzuen eskubidiak errespetatzen dirala uste dot. Ba-dago jendia txakurkumiak hartu eta gero, nagusitzerakuan edo uda sasoian, laga egitten dabe-zenak. Animalixak hartzen badi-ttugu, gero horren kargu egitteko izan bihar da.



NURIA VILA
39 urte
administrarixa

Orokorrian baietz esango neuke; hamen bai behintzat, nahiz eta egixa dan agian zihaztu biharreko gaixa dala. Batzuetan emoten dau animalixak personak baiño eskubide gehixago dakela: sensi-bilizaziño gehixago dakagu ani-malixekin personekin baiño.



OKora Leibar
Isasi, 18 943 53 12 59

100 m²ko autozerbitzua

- Altzariak.
- Menajea.
- Bainurako osagarriak.
- Ehungintza.
- Argiztapena.
- Opari pertsonalak.
- Osagarriak.

- kotsola: 224 €
- koadroa (Meninak): 49 €
- koadroa (London): 19 €
- lanpara: 29,9 €
- kuxina: 9,9 €

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizeta 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errausketa labea

Egoiborran (Signo poligonooan)

Partikular, mitua eta oaguri enosi zerbitzuak

Korak - Eskelak - Urteurrinako eskelak

Euskal Herri osoan ospitaleen hartzen zaitugu

Nazio eta Nazioarteko irazledeak

Mugica Ehorzketa
Prestakuntza labrea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

MUNDU ZABALARI KANTUAN


Eibarren musika kontuak beti euki dabe arrakasta, sasoi guztietan eta edade diferentietako publikuaren artian, baiña azken aldixan uzta oparua emoten dihardu Eibarrek, musika kontueri dagokixonez behintzat. Hamaika adibide dittugu, baiña oporretatik bueltan lan barrixak argittara emon dittuen musikari batzuk aukeratu dittugu protagonista modura. Danak dira gaztiak, danak maitte dabe musikia eta danak dagoz euren azken lana ezagutzera emoteko desiatzen, herrixan bertan eta baitta hamendik kanpora be. Izan be, askorendako musikiak ez dau mugarik ezagutzen eta hamentxe horren proba garbixa.

Napoka Iria taldiak bixar eskinduko dau kontzertua Londresen, Euskal Elkarte Londonbasquek bertan dakan egoitzan. Ez da hauxe izango taldiak Euskal Herritik kanpora egindako lehelengo emanaldixa, ezta gitxiago be: askok oindiok goguan izango dozue 2008ko azaruan Japoniara egindako biajia eta han eskindu zittuen konziertuak (interneten sartuta dittuen irudi eta grabaziñuak ikusteko modukoak dira). Halanda be, asteburuan eurak "London tour" modura batiatu daben horretara aillegau aurretik, ez pentsau beti holan ibillittakuak diranik, are gitxiago taldia jaixo barri zanian.

2005ian ekin zetsan ibilbidia-ri etxia Eibar eta Elgoibar bittartian banatuta dakan musika talde honek, Ander Mujika (gita-

rria eta bigarren ahotsak) eta Miren Narbaiza (ahotsa eta gitarraria) musikari gaztien eskutik. Gitarra akustiko bana hartuta, hortik aparte euren ahotsa, beste laguntasunik ez eben euki euren musikia ezagutzera emoteko asmuarekin Euskal Herriko taberna pillua zapaltziari ekin zetsenian. Rock-a oiñarri dakan musikia lantzen dabe, baiña kantuak lasaixak izatia lortzen dabe oso ahots berezixa eukitziair esker.

Bilboko Bilborock aretuan irailian lehelengo diskua presentau ostian, zuzeneko beste emanaldi batzuk eskintzen dihardu DANI GASCÓNek



Bideoklip barrixa interneten

Hamaika kontzertu emon zittuen herri eta taberna ezberdiñetan, baiña gaur egunian, hiru urte pasau ondoren, musikaren munduan oso beria daken estilua landu eta ezagutzera emon dabela ezin leike zalan-tzan ipiñi. Internetek gaur egunian errekurtsu gitxiarekin gauza haundixak egitteko aukeria eskintzen detsez Napoka Iria modukueri eta gazte bi honek ondo jakin dabe zelan erabilli eskura euki dittuen erremin-ttak: Myspace dalakuan taldia- ren (<http://www.myspace.com/napokairia>) musikia, bideoklipak eta beste hamaika kontu "zintzilikatu" dittue, tartian landu barri daben bideoklipa: "Poortstraat 58". David Zabalak euki dau lana grabau eta editatziaren arduria. Holandako Utrecht hiriko kale bateri eskindutako abestixa ez da barrixa Napoka Iriarendako, oin dala pare bat urte "90 segundu" eta "Egurra" taldiekin batera Bartzelonako Sons estudixuetan aurretik kanta bera grabau ebelako. Beroketarako ariketa aproposa benetan, taldekidiak zuzeneko diskua grabatzeko asmua dakela kontuan hartzen badogu.

Bideoklip barrixa grabau daben NAPOKA IRIA taldiak asteburuan Londresen joko dau, hango Euskal Etxiak antolatutako ekitaldixan

Barri-barrutikan kantuan

Eta oso bestelako estiluarekin lehelengo diskua emon dau argittara Dani Gascón kantautoria. Irailaren 17xan Bilboko Bilborock aretuan aurkeztu zittuan zuzenian eta lehelengoz "Dentro de mí" diskua osatzen daben 14 abestixak. Oso gaztia zala musikiarekin erakarritta sentidu dan eibartarrak hainbat saiakera egiñ izan dittu aurretik be, baiña musikia munduari serixo heltzeko erabagixa iaz, 2009-xan hartu eban eta izenburuak argi lagatzen daben moduan erabat intimua dan diskua izan da bere biharrak emon daben lehelengo fruitua.

Promoziñuan buru belarri sartuta, zuzeneko emanaldixetatik aparte Gascónnek be bere musikia mundura zabaltzeko bide egokixa topau dau interneten. Bere izen bera dakan web-



gunetik hasi eta, Napoka Iriak egindako moduan, Myspace eta bestelakuetan bideoklipa ikusteko aukeria dakazue eta, zelan ez, abestixak entzun, jaitsi eta, batez be gozatzekua.

Eta, Napoka Iriak eta Dani Gascón bakarlarixak jorratzen dittuen estiluak euren artian diferentia dirala esan badogu, zer esango dogu ba hurrenguekin konparatzen ipiñi bihar bagara? Izan be, eszenarixoa haundi eta konziertuetarako aretuetatik aparte jarduten dabe jarraixan datozen protagonistak. Erromerixak girotzekua da eurak jotzen daben musikia eta, holan, erromerixa giruan emon eben ezagutzera euren azken lana herriko hiru trikitilarik.

Faborez erromerixan

Faborez bildumaren laugarren alia argittara emon barri dau Euskal Herriko Trikitixa Elkartiak. Bilduma osatzen daben beste hiru diskuen bidiari jarraituta, hamen be hainbat trikitilarik hartu dabe parte, lau

bikotek hain zuzen be, pieza diferentia eskinduta. Tartian hiru eibartarrek jardun dabe, eurtako bik alkarrekin, bestela be holan jarduten dabelako Agirrebeña anai-arrebak, bikotia osatzen, eta Jon Ansorregi (honek Larrañagarekin batera jardun dau). Diskuan parte hartu daben beste bikote bixak Lutxurdio eta Aitziberrek eta Patxi Aiorga eta Joseba Zabalok osatutakuak izan dira.

Dantzarako aproposak diran 20 pieza batu dittue Faborez bildumaren 4. alian eta hiru eibartarrek hartu dabe parte: AGIRREBEÑAtarrak eta ION ANSORREGIK

Bergarako San Martin plazan ospatutako erromerixa berezixan presentau eben dis-

kuak 20 pieza dakaz eta horretatik bost Ander eta Aintzane Agirrebeña grabautakuak dira: “Hegoaldeko izarra”, “Bergetxe”, “Maria Titilitaña”, “Pasodoblea” eta “Maitasun bat”. Gaiñontzeko piezak zeintzuk diran ikusitta, trikitixa gustoko dakenak segiduan konturauko dira Trikitixa Elkartekuak antxiñako erreperitoxuari astindua emon detsala, atzera be pieza batzuk aukeratu eta zalieri danak alkarrekin eskintzeko. Edozelan be, pieza guztiak dantzarako modokuak izanda, erromerixan presentatzeko erabagixa hartu eben, diskuan batu dittuen 20 kantak zuzenian entzun eta jendiak dantzan egitteko aukeria eukitzeko.

Aintzane Agirrebeña diñuan, “eskerrak emon bihar detsaguz Euskal Herriko Trikitixa Elkarteari, bilduma honetan parte hartzeko aukeria emon deskulako. Neretako, behintzat, oso esperientzia politta izan da. Iain jendiaren aldetik zelako erantzuna jasotzen dogun!”.



Napoka Iria 2008ko abenduan Tokio Tour dalakuan hartutako irudixa.

RAMIRO MORENO COLLADO

(2010eko urriaren 4an hil zen, 62 urterekin,

**INOIZ EZ ZAITUGU
AHAZTUKO**

Industrias MAIL-eko zure lankideak



TEEN- AJEA



Urko De la Torre Batxilergoko lehen urtea egiten dihardu. FM-ko 107.4an aurkitu dezakezen Eibarko La Salle Irratiko martitzeneko programa aurkezten du, 14.00etatik 15.00etara. La Salle Magazine hain zuzen. Astelehenetan Ahoz-Aho eta eguaztenetan Gure Txokoa eskaintzen du irrati horrek aipatutako orduan. 10 urte betetzen ditu emisorak aurten eta programa bereziak antolatuko dituzte.

URKO DE LA TORRE, irrategizona: “Gure irrati-a zabaldu nahiko genuke beste ikastetxeetara”

- Zelan gerturatu zinen irrati mundura?

Bizpahiru urte izango dira, DBHko 2. urtean Ikus-entzunezko gelan hasi nintzenean. Hasieran saltseatzen batez ere eta gero buru-belarri, irratiari sartzeko derrigorrezkoa den ikus-entzunezkoetatik behin pasatuta.

- Hasierako une haiek gogoan dituzu? Lehendik zenuen gustokoa mundu hori ala gero atara diozue zuek?

Irrati mundua betidanik interesatu zait. Hasierako programean urduritasuna nabari zen, gidoia zelan moldatu asmatzen etabar. Gogoratzen dut Borja Rodríguez esatariari egindako elkarrizketa: lehenetarikoa izan zen eta asko lagundu zigun lasaitzen.

- Orain bakarlari lanak egiten dituzue zure irratsaioan. Askotara igaritzen da aldaketa?

Errodaje pixkat banuen aurretik. Iaz arte aurten antzerkita pasatu diren beste lagun birekin egiten nuen programa. Gero, Batxilergoko batekin; hori nik lehenengo ordu erdia egiten nuen

eta berak bigarrena. Lana pila-tzen bazait ere, ondo moldatzen naiz eta gustora nabil.

- Denbora asko kentzen dizu irratsaioa prestatzeko?

Martitzenerako programa aurreko barixakuan edo zapatuan hasten naiz prestatzen. Edozein elkarrizketa ere egun bi lehenago, gero audioa garbitzeko.

- Aurten, 10. urteurrena dela-eta, programazio berezia antolatatu behar duzue?

Bagabiltza gauza batzuk prestatzen eta gure irrati-a Eibar gut-tira zabaltzea nahiko genuke, herriko beste ikastetxeetako ere gure lana ezagutzeko aukera emanez. Bestalde, hilabetero lehiaketa bat antolatuko dugu: oraingoan, esaterako, logo berriarena zabaldu dugu.

- Zein arlo gustatuko litzaizuke lantzea irratiari beharra egiteko aukera izango bazenu?

Kirolak betetzen nau gehien. Elkarrizketak ere aberasgarriak dira oso, jendea ezagutzeaz aparte, eurenganako eta munduarekiko ikuspuntua aldatzea ahalbidetzen dutelako.

Etxola jatetxea
 etxolajatetxea@hotmail.com
 Erreserbak: 943-207019
 Txirio kale, 1

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Radio Eibar
 CADENA
SER
 104,0 FM

Iradi
 LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

DANBAKArri jarraipen berezia egingo dio ...eta kitto!-k

Danbaka Musika Lehiaketaren laugarren edizioari jarraipena egiteko konpromisoa hartu du ...eta kitto! astekariak, lehiaketaren antolatzailea den

Goienak Debabarreneko eta Durangaldeko bost hedabide laguntzaileekin martitzen goizean hitzarmena sinatuta. ...eta kitto! astekariarekin batera, Ermuko Drogetenituri

hilabetekariak, Soralezeko Pil Pilean hamabostekariak eta Elgoibarko Barren eta Durangaldeko Anboto astekariak ere sinatu dute lehiaketaren inguruko informazioari ahalik eta zabalkunde handiena ematea helburu duen hitzarmena. Horri jarraituta, beraz, datozen asteotan eta

lehiaketa martxan dagoen bitartean ...eta kitto! aldizkariak tarte berezia eskainiko die lehiaketa izango diren musika taldeei, ematen dituzten kontzertuei eta, nola ez, sailkapenen inguruko gorabeheri.

Epaimahaiko kideek honezkero aukeratu ditu eta lehiatuko diren 20 taldeetatik 19 eta hogeigarrena ikusleek aukeratu dute, internet bidez www.danbaka.com webgunean emandako botoekin.

Lehiaketaren edizio honetan, gainera, Eibar ordezkatzeko talde bi izango dira: folka, po-

pa eta rocka jorratzen dituen Seafóid eta rock-and-roll doinuak lantzen dituen Txusters.



Debabarrena eta Goienako ordezkariak hitzarmena sinatu zuten egunean. / GOIENA

Aurtengo edizioan talde bi izango dira Eibar ordezkatzeko: SEAFÓID (folka, popa eta rocka) eta TXUSTERS (rock-and-roll)

Surf ikastaroa Zarautzen

LA SALLE AZITAINGO 4. DBH-KO IKASLEAK urkirolak egiten izan dira, surf ikastaroa hain zuzen, irailaren 30ean eta urriaren 7an Zarautzen. Ikastetxean egin ezin diren jardueretako bat izanda, aukera bikaina izan zuten itsasoaz gozatzeko, goizeko ordu horietan ura hotza egon arren. Ikastaroan hainbat azalpen eman zizkieten La Sallekoei: hala nola, oholaren erabilera, zelan eutsi jausi barik, arroparen ingurukoak eta uhin motak eta, horren arabera, zein jarrerara hartu behar den. Egun ahaztezinak izan dira.



Autoenpleguaren alde onak lantzen

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZA UNI EIBAR-ERMUAN IKASTEN DIHARDUTENEK enpresa-sormena garatzeko saio berezian hartu zuten parte orain egun batzuk. Besteak beste, autoenplegua lanpostu bat aurkitzeko zailtasunei aurre egiteko aukera gisara aurkeztu zieten gazteei, ikastetxean arlo horren inguruko ardura duen Carmelo Oyarzabalek argazkiarekin batera helarazi digun idatziak jasotzen duen moduan: *"25 urtetik beherako gazteen %25 langabezia dagoen testuinguru honetan lehentasuna eman behar zaie lan egiteko bideak zabaltzen dituzten autoenpleguaren modukoari"*.

OBESITATEA

Gorputzeko gantza handitzeak ekartzen duen pisu igoerari obesitatea deitzen diogu; kronikoa den gaixotasuna da.

Bere oinarrian hainbat faktore ezagunak daude: genetikoak, ingurumenekoak, bizimodu sedentarioaren ondorioak; eta, baita, gaixotasun eta botika batzuk ere.

Pisua egokia den ala ez jakiteko, Quetelet formula (edo gorputzeko masa indizea -GMI-) erabiltzen dugu; hau da, $GMI = \text{Pisua} / \text{Taila}^2$: horko emaitza 20-25 artekoa bada, ez dago pisu arazorik. 25etik gorakoan, gehiegizko pisuaren aurrean gaude; 30 gaindituta, obesitateaz ari gara.

Ez dihardugu bakarrik pisu arazoaz, baizik eta osasunarentzat horrek ekar ditzakeen ondorio larriaz.

Gehiegizko gantzaren kokapenaren arabera, obesitatea bi talde nagusietan sailka daiteke:

Sabeleko obesitatea (sagar itxura).– Osasunerako ondorio larrienak ekar dezakeena: Diabetesa, hipertentsioa, gaixotasun kardiobaskularrak eta gantz profilaren alterazioak, besteak beste.

Obesitate periferikoa (madari itxura).– Aldaketan eta izterretan jartzen den gantzak barizeak eta belaunetako artrosiak dakartza.

Helduen obesitate kasu asko haurtzarotik edo nerabezarotik datoz. Eta prebentziorako indar edo neurri guztiak etapa horretan hartu behar dira. Beharrezkoa da elikadura ohiturak aldatzea elikadura egokia lortzeko.

Hainbeste tratamendu proposatzen diren arren (dieta miresgarriak, belarrak, algak, diuretikoak), batzuk kaltegarriak izateaz gain, arriskutsuak ere izan daitezke; epe luzera begiratuta, ardatz nagusi bi daude pisu egokia lortzeko eta, behin lortuta, horri eusteko: elikadura aproposa eta ohiko ariketa fisikoa.



Silvia Zuluaga

NOLA ZAINDU DEZAKET LARRUAZALA NEGUAN



Larruazal normal edo koipetsuek hobeto jasaten dute hotza larruazal lehor edo sentikorrek baino, azken horiek babes eta zainketa handiagoa behar dituzte-eta. Gomendioen artean ondokoak dira azpimarratzekoak: hidratazio egokiarekin babestu behar da larruazala, bereziki aurpegikoa eta eskuetakoa, eta gauza bera ezpaineekin ere. Kontu izan nagusien eta umeen azalarekin. Ez zaitetz gehiegi dutxatu edo bainatu, eta ez erabili xaboi gogorrik. Elurretara joanez gero, ez ahaztu foto-babesa. Kontuz hotz-bero aldaketekin, eta hotzaz babestean, ahal dela, ez erabili izerdia ateratzen uzten ez duten oinetako edo arropak. Psoriasis edo dermatitisa moduko gaixotasun arruntak okertu egiten dira neguan. Dermatologoaren zaintza berezia behar izaten du te urteko sasoi honetan. Saia zaitetz etxean hezetasun handiari eusten, horretarako gailuak edo berogailu inguruan oihal bustiak ipinita.



INSOMNIOA DAUKAT. ZER JAKIN ETA EGIN BEHAR NUKE



Arozotzat jotzen da zenbait gau jarraian, aste batzuetan edo hilabeteetan gertatzen bada. Lo ezak nekea dakar eta eguneroko bizimoduari aurre egiteko zailtasuna. Arrazoietako bat ohituraz gai bizigarriak hartzea izan daiteke, besteak beste, kafea, kola, nikotina... Estresak, zarata handiko ingurunea eta ordutegi aldaketak ere loezinaren eragile izan daitezke. Hainbat ohitura osasuntsu har ditzakegu: ordu berean oheratu eta jaiki; oheratu baino 2 ordu lehenago afaldu, ez gehiegi, ez gutxiegi, ez izateko ez astun ezta gose ere; gauza bizigarriak neurriz hartu. Urteekin lo egiteko beharra gutxitu egiten da.



ZER EGIN LUNBALGIAREN AURREAN




Sendagileak tratamendurik egokiena adieraziko dizu, zure adin eta ezaugarrien arabera. Mina baretzeko analgesikoa hartzea izaten da erremediorik eraginkorrena. Ez da gomendagarria ohean atsedena hartzen 2 edo 3 egun baino gehiago egotea, muskulatura ahuldu eta errekupeazioa moteldu dezakeelako. Ohiko jarduerak egiten lehenbailehen hastea komeni da. Minarentzako beroa, ur-boltsa adibidez, ona izaten da. Mina dagoen bitartean kirolik ez da egin behar. Hala ere, kirola egitea ona da lunbalgia ekiditeko.





Eskerrik asko



	<p>ZARAUTZ</p>	<p>MARKINA-XEMEIN</p>	<p>ASTIGARRAGA</p>	
<p>TOLOSA</p>	<p>ARAMAIO</p>	<p>BIRIATOU</p>	<p>GIZABURUAGA</p>	<p>ALDATZ</p>
<p>XIXON</p>	<p>ITZIAR</p>	<p>ASTIGARRAGA</p>	<p>HERNANI</p>	<p>USURBIL</p>



Untzaga sagardozaletz




Tolaria





Eskuan kabitzen diranak.

Eguraldixa eta herrittarrak lagun, aurten be euskal girua izan zan nagusi Untzagan, ...eta kitto! Euskara Elkartiaren Sagardo Egunian. Eskerrik asko laguntzen ibilli ziran bazkide eta laguneri, jai horretan parte hartu zeben herritar daneri eta suministradorieri. Bereziki

eskertu nahi dogu Sasipe, Botellin eta Peña Txinberako lagunak eskindutako laguntasuna. Datorren urtera arte!




Arratsaldekoa





gainezka

Txotx



Ezkontzarekin maridaja.



Eseritta, janda majo.



OKINDEGIA

URKO



ERMUAN ETA EIBARREN



Juan Gisasola, 4

Urkizu, 16

Guillermo

Tfnoa. 943 202 954 Mobila. 639 984 321

Eibartarren arteko lehiak 1. mailako Erregionalean

ZORTZI TALDETIK LAU, HAUDA, MULTZOKO ERDIAK EIBARKOAK IZANDA, ez da zaila ia asteburuero euren arteko norgehiagokak izatea eta, horrela, aurrekoan Eibartarren eta Urkiren artekoan, lehenengoak nagusitu ziren (5-0). Eibartarrak-ek beste talde bat ere badu multzo berean, Bergara B-ren aurrean 3-1 galdu

zuen; azkenik, Gazteak-ek 1-3 galdu zuen Soraluze multzo horretako liderrarekin.

Asteburu honetan Urkik eta Gazteak-ek neurtuko dituzte indarrak Unben; Eibartarrak B-k, bestalde, Aretxabaleta hartuko du Unben eta Eibartarrak-eko lehenengo taldeak Soraluze jokatu du, bertako bigarren taldearen aurka.



Gazteak izan da azken urteotako Eibarko talderik onena 1. Erregionalean.

Barruetaren debuta erresistentziako zirkuitoetan

ESCUDEÑA EIBAR TALDEKO AITOR BARRUETAK DEBUTA EGIN ZUEN ASTEBURUAN ERRESISTENTZIAKO Espainiako Kopan eta, Xavi Riera juniorrekin taldea osatuz, Riera Racing-eko BMW 320d-arekin hartu zuen parte. Zapatuan igarri zitzaion eibartarrari hasiberria zela modalitate horretan, baina domekan asko hobetu zituen prestazioak. Ez hori bakarrik, podiumeko 3. postuan zihoala, beste auto batek jo eta pistatik atera zuen; hala ere, tronpoa egin eta gero, 6. postuan amaitu zuen.



Waterpolistak Bordelera gonbidatuta

BIDE BERRIARI EKIN DIOTE AURTEN URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO TALDEKOEK eta, David Cerchi prestatzaile berriarekin, orain arte baino serioago oraindik hasi dute denboraldia. 14 urtetik beherakoen talde berriak Donostian egin zuen debuta, 8-5

irabaziz. Joseba Urkia, Iker García, Imanol Nieto, Unai Etxaburu, Mikel Sánchez, Alex Sarasua eta Izei Solagaistuak osatu zuten taldea. Bestalde, Bordeleko Gironins-ek Eibarko taldea gonbidatu du, Waterpolo Donostiarekin batera, han jokatu den torneora.



Ruibalen garaipena saskibaloian

DENBORALDIA ETXEAN GALTZEN HASI ETA GERO, BIGARREN JARDUNALDIAN MENDEKUA hartu du gure herriko saskibaloia taldeak eta, neurketa parekatsuan, 53-57 irabazi zion Aldabe Irun Basket-ari. Atsedendian eibartarrak ziren nagusi, hor ere doidoi (29-30); hirugarren zatia-aren amaieran puntu bakarraren aldearekin jarraitzen zuten Ruibalekoek eta, azken laurden-ean, zazpi puntuko tarte- lortu ondoren, 53nako berdinketa heldu zen. Azken minutua ei-

bartarra izan zen. Jon Arriaga ondo zuzendu zuen taldea eta bera izan zen saskiratzaile onena, 14 punturekin.

Hamalau taldek hartzen dute parte maila berrian eta Hernándezek eta Sampedrok zuzendutako Eibarko taldeak honako jokalaria dituzte: baseak, Arriaga eta Polanco; eskoltak, Parmo, Mauriz eta Asenjo; hegalekoak, Ramos, Mikel Lekunberri, Arnaiz eta Gergori; hegal-pibotak, Ibai Lekunberri eta Magro; eta pibotak, Azurmendi eta Azkue.



Urkiko nesken garaipena

AURREDENBORALDIKO AZKEN PARTIDUAN, infantil mailako Urkiko nesken taldeak 6-0 irabazi zuen Oñatin, hango Aloña Mendiren aurka. Ordu laurdena eutsi zieten oñatiarrak eibartarrei; hortik aurrerakoa erraz joan zen Alberto Lamarianok zuzentzen duen taldearentzat. Maria Calvo, Leire Garate, Mirari Espinazo, Laura Prieto, Ainara Juaristi eta Ione Amas izan ziren goleatzaileak.



Martitzenean egingo da BTT martxa

II. DEBABARRENA BTT MARTXARAKO AURREZ IZENA EMATEKO EPEA gaur arte zabaldu zuten martitzenean; ordurako 90 lagun zeuden apuntatuta. Ibilbide bi izango ditu proba horretako bigarren edizioak: laburragoa, 25 kilometrokoa, eta beste bat luzeagoa, ia horren bikoitza izango duena, 45 kilometrokoa. Parte hartzen duten guztiek saria eraman ahal izango dute etxera.



Ferreiro 3.a squash-eko Espainiako txapelketan

IRUÑEAKO SAN JUAN ELKARTEKO INSTALAZIOETAN JOKATUTAKO 2. MAILAKO SQUASH-EKO Espainiako txapelketan, gure herriko Klub Deportiboko ordezkariak 3. postua eskuratu zuen Iñaki Ros nafarrari 3-0 irabazi ondoren (11-7, 11-9 eta 11-9). Irabazlea beste nafar bat izan zen, Javier Villanueva, azken honek 3-1 irabazi baitzion Santi Grau kataluniarrari. Emakumezkoetan, Laura Sáez arabarra izan zen txapelduna.

Asobalekoa Logroñora doan bitartean, 1. Nazionalekoak Barakaldo hartuko du

NATURHOUSE LA RIOJA IZANGO DU AURKARI ARRATEK BIHAR, 20.00etatik aurrera, Logroñoko Kirol Jauregian. Talde zaila izango da puntuak lortzeko, baina

aurreko asteotan baino aukera gehiago eskainiko dituena ziurrenik. Partidu horretarako Petritxev berreskuratu du Eibarko taldeak.

1. Nazional mailan diharduen bigarren taldeak, bestalde, ez du denboraldia ondo hasi eta jokaturako hiru partiduetan galtzaile izan da. Bihar Barakaldo hartuko du Ipuruan, 18.30etan, eta kome-ni zaio berandu baino lehen puntuak bartzten joatea.



Patronatoaren padel torneoa


EIBARKO KIROL PATRONATOAK BAZKIDEENTZAKO PADEL TXAPELKETA IPINI DU MARTXAN kirol hori praktikatzeko aukera emateko. Neurketak epaitzen jokalariek eurak izango dira eta parte-hartzea librea eta doanekoa izango da. Edozein iradokizun egin nahi izanez gero, actividades@eibarkirola.com helbidera jo daiteke 'Esteban Padel' tokira. Kontsultak www.kirola.com helbidean.

NARRUA

Bidebarrieta, 16 Tel. 943 20 41 02
narrua-eibar@hotmail.com



KONPLEMENTOAK




berriro ere
ZUEKIN

Haritz Garro 6.a Barakaldon

AURREKO BARIKUAN AMAITUTAKO BARAKALDO-KO XAKE TXAPELKETAN, 8. zerrendaburu aurkeztu zen Haritz Garro eibartarrak postu hori hobetu eta 6.ean amaitu zuen. Emaiza horri esker, Clara Campoamor kultur-etxean jokaturako azken txandan txapelketako 1. mahaian jokatzeko aukera izan zuen, gero txapelaldun izango zen Alain Prieto durangarrarekin.

Klub Deportiboko xakelariendako hurrengo erronka urriaren 16an hasita hurrengo zazpi zatuetan Azkoitian jokatu den Gipuzkoako txapelketa nagusia izango da.



Eibarrek hainbat baja izango ditu Iruñean



ZIGOR ATEZAINA, KIJERA ATZELARIA ETA ALEX GARCIA ERDILARIA baja izango dira zapatu arratsaldean, 17.00etan hasita, 2. B mailako lidergoan (Torrelavegako Gimnasticarekin batera) dagoen Eibarren. Atezaina hilabetetik gora egon daiteke jokatu barik hernia baitauka, Kijerak higadura du eskumako meniskoan eta, apurketarik ez dagoenez, ez dago argi zenbat denborarako izango duen, eta Alex García, sudurra apurtu zue-

nez, beste jardunaldi bitan hartu beharko du atseden. Aldaketa garrantzitsuak izango ditu, beraz, Manixen taldeak bihar ko eta hurrengoko partidurako. Atzelari gutxi ditu taldeak eta eskerrak badirudiela Urzelai errekuperatu dela. Eskozia La Brava peñakoek autobusa antolatu dute partidura joateko.

Bestalde, hilaren 18an, astelehenean, urteroko Ohiko Bartzar Orokorra egingo da Portaleko gela aretoan, klubaren egoera aztertzeko.

Debarrenaren garaipena areto-foballean

HONDARRIBIKO BAR IGNACIO-RI 2-4 IRABAZITA, Debarrena sailkapeneko lidergoan kokatu da, beste batzurekin berdinduta bada ere. Jardunaldi bietan beste hainbat garaipen eskuratu dituzte Eibarko taldearen gazteak. Lehen zatiak 0-1eko emaitza erakusten zuen, baina hala ere asko kostatu zitzaizen eibartarrei neurketa euren-ganatzea. Piruk gol bi sartu zituen eta banarekin kolaboratu zuten garaipenean Emmanuelek eta Maikelek. Hurrengo neurketa ere kanpoan jokatu



beharko dute eibartarrek, oraingoan Azkoitian eta bertako Zurt taldearen aurka.

Deportiboko ordezkarien pilota partidua gaur Astelenan


20.00-ETAN HASITA, KARMONAK (EDO ZUBIZARRETA) ETA UNAMUNZAGAK osatutako bikoteak aurre egingo die Oiartzunek aurkeztuko dituen ordezkariari. Irabaztea komeni zaie ligaxkan aurrera egi- tea nahi badute. Azken asteburuan bat irabazi eta bi galdu zituzten Eibarkoek.

NAFARROA OINEZ

Atarrabian urriaren

17^{an}

IRTEERA
08.30etan
-Ego Gain-
ITZULERA
19.00etan
9 euro



AUTOBUS

TXARTELAK

2010

zerbitzua

...eta kittol-n

munduz mundu

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kittol! Euskara Elkarte

KATU



KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkarte@etakitto.com

...eta kitto!-ren bazkide eta lagunak bat urriaren 23an



KITTO
Bazkide Jaixa!!!

**OSTROK OSTRO
ARBOLIA
JANTZI**

izan gure ostrua!

bertso taldea
euskararen erabilera
danan ahotan
berbetan
Euskal Jaiak
Euskal Jaiak
txikittoaldizkaria
KIROLKITTO!
San Juan-eko
berbia emon
harixa emoten
kultur programa
kittonbolia

- Puzgarriak
- Umeendako tallarrak
- Bazkarria
- Pailazo tallerra
- Mus txapelketia
- Futbol txapelketia
- Musika Dantzaldia

Urriak 23, Armeria eskolan
etartu famelixa eta lagunekin batera,
ondu pasatzen!!

Orain urte bi ospatuko egun handiarekin jarraitzeko asmoarekin, datorren urriaren 23an ...eta kitto! Euskara Elkartearen II. Bazkide Jaixa izango da. Hori dela eta, egun osoko egitaraua prestatu da, berriro ere Armeria Eskolan. Bazkideen arteko harremana zaindu, hobetu eta bat egitea du helburu Bazkide Jaixak.


Goizeko 13.00ean hasiko da eguna piskolabarekin; umeendako tailerrak eta puzgarriak izango dira eta nagusiek futbollean jokatzeko aukera izango dute. 14.00-etan talde argazkia egingo da eta jarraian bazkaria. 16.00etan Zirko Tailarra izango da txikiendako eta 17.30etatik aurrera Dja alde batetik, eta bestetik mus eta futbol txapelketak eta umeendako tailerrak eta puzgarriak berriro ere.

Orain urte biko giro ezinhobea gaintzea nahiko luke elkarteak eta horretarako bazkide guztiak gonbidatu nahi ditu, "etorri bazkide, zure lagunekin. Nagusien sarreraren prezioa 22 eurokoa izango da eta umeena 17 eurokoa. Sarrerak ...eta kitto!ko bulegoetan daude salgai, gaurtik aurrera", gogoratu dute elkarte arduradunek.

Bihar, zapatua, La2 kateko Documentos TV saioan, Ibon Uzkudun eibartarrak zuzendutako "Pablo Ibar, último asalto de un Urtain" emango dute. Bifushion ekoiztetxearen lana da eta orain dela urtebete ETB2an eskainitakoa, orduko hartan minutu gutxiagorekin.

IBON UZKUDUN, komunikatzailea:

"Dokumental honek markatu nau, onerako"



- Zeintzuk osatzen duzue Bifushion? Zer egin duzue orain arte?

Goenkaleko Aitor Koteronek eta neuk: bera gehiago produkzio lanetan eta ni edukiez arduratuz. "Jaigiro" egin genuen iaz, baita ETB2ko urte amaierako kanpaiak ere (hor share deitzen denaren %17,7 lortu genuen, 117.000 ikusleekin, TVE1-en atzetik) eta "Toros en Eibar" dokumentala egin dugu, zezenatan baino gehiago eibartarrek horrelako jaiak zelan bizitzen zitzuten erakusten duena.

- Documentos TV moduko programan zuen lana ikusi ahal izateak meriturik badu.

20 urtetik gora daraman programa da eta toki guztietan izen ona duena, goraiatua. Guretzako, interesgarria izateaz gain, zerua ukitzea da.

- Lehen ETB2an eskainitakoarekin, zer alde du?

Hark 41 minutu bazituen, honenkin 52ra pasatu gara. ADN frogarriak daude tartean eta eskusiban izan gara erruduna izan daitekeen beste inplikatu batekin egindako bista judicial batean.

- Zergatik hartu zenuten Pablo Ibar-en kasua dokumentala egiteko?

MA News-ekin egindako koprodukzioa da eta, nazioartean ere emititzeko interesa piztu zigun, gaiak berez ere

nahikoa piper duelakoan. Hasi eta gutxira, kartzelan nengoen, laranja jantzia ia: oso gertutik jarraitu dut. Dokumentuen erdia hemen grabatutakoa da eta beste erdia EEBB-etan.

- Zerk deitu dizu atentzio gehien dokumentalean?

Pablo Ibar-ek zelan egiten duen berba kamararen aurrean. Errugabe bakarrik ez, gardena ere agertzen zaigu. Ez da sinesten diozula, barnetik hitz egiten dizu; alde batera lagata benetan erruduna den ala ez.

- Arazoak ere ez ziren nolana izango, ezta?

Burokratikoak gehienak, berarengana iristeko bidean. EEBB-etako justizia mesfidati agertu zaigu epaiketetan sartzeko eskaerak -eta egin ditugunean. Guk argira eman dugu kasua, besterik ez; ez dugu inolako posizioirik hartzen.

- Urtain familiakoarenak ez du irtenbide errazik izango, ematen duenez...

Luze doa. 15 urte dira dena gertatu zela eta hamar urte heriotzaren korridorean sartuta. Justizia ere gogor dago bere posturan eta, abokatu berriak aurrekoaren ondoan askoz hobeto badihardu ere, zaila izango da. Badago Pablo Ibar-en aldeko elkarte bere alde lanean diharduena eta eskutitza bidali dakizkioke pabloibar.com helbidera. Heltzen zaizkio.



Armeria Eskolaren mendeurrena prestatzen

BADIRA PARE BAT URTE EIBARKO ARMERIA ESKOLAREN MENDEURRENA OSPATZEKO ekitaldiak prestatzeko beharrea hasi zirela. 2012an beteko dira 100 urte Armeria Eskola martxan ipini zela eta, oraindik hilabete batzuk falta diren arren, egitarau berezia osatuko duten ekitaldietako batzuk prestatzen hasiak direla azaldu dute aste honetan bertan eskainitako prentsaurrekoan. Mendeurrenaren aitzakia-ekin "heziketa-zentro integrala" osatzeko helburua dute

ikastetxeko arduradunek, "batik bat gure inguruan enjeneren alorrean egon daitezkeen premiei erantzuna emateko asmoz". Horrekin batera, erakusketak bereziak, zigilua, liburua, agintariekin bisitak eta beste hainbat ekitaldi garatuko dira.

Mendeurrenaren irudia, bestalde, uda aurretik aurkeztu zutela gogora ekartzeko aprobetxatu zuten ekitaldia. Irudi hori Eibar K.E.-ko neskek ezagutzera ematen dihardue Superligan erabiltzen dituzten kamiseti esker.



Alacanten inguruko herri askotan egiten dira Mairu eta Kristauen jaiak.

Alcoyko 400 arkabuz Eibarren aztertze

OSPETSUAK DIRA ALACANTEKO ALCOY HERRIAN ETA INGURUAN EGITEN DIREN MAIRU ETA KRISTAUN JAIK. Hor erabiltzen diren armen artean, arkabuzak izaten dira nagusi eta herrietako 400 inguru Eibarrera ekartzen joango direla jakin berri dugu, aipatutako jaiak hurrengo urtean, maiatza aldera ospatzen hasi aurretik egoera onean daudela ziurtatzeko. Izan ere, horrelakoen inguruan Goardia Zibilak egin ohi dituen kontrolak asko zorrotu omen dira azken urteotan. Honezkerok Azitaingo industrialdean dagoen Probetako Bankutik 125 arkabuz pasatu dira eta probatzen joateko gehiago ekarriko dituzte.

Lipdub lehiaketako finala 15ean

EIBARKO UDALAK, EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK ETA EIBAR.ORG ELKARTEAK EUSKARAZKO BIDEOKLIPEN inguruan antolatutako lehiaketa azken txanpan sartu da eta, finalistak aukeratuta, irabazleak aukeratzeko egun gutxi batzuk baino ez dira falta. Orain arte internet bidezko botuek aukeratu dituzte lanik onenak, baina irabazlea zein den Coliseo antzokian erabakiko da, hilaren 15ean, horretarako bereziki antolatu duten ekitaldi berezian. Iban Garate aktoreak aurkeztuko duen ekitaldia 19.00-etan hasiko da eta, besteak beste, Eibarko Koro Gazteak parte hartuko duela aurreratu digute.

Ekitaldian bertan ikusiko dira finalistak bideo-klipak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Plano Cortok, Kezkak, Eibar.org-k eta Eibarko Udalak osatutako epaimahaiaren botuek azken botazioaren erdia osatuko dute; beste erdia, berriz, ekitaldira joandako publikoak erabakiko du, sarreraren jasotako txartelak bete eta bertan botua emanda. Sari bi banatuko dira, bat sail nagusian eta bes-



tea ikastetxeen sailean. Sail nagusirako sailkatu diren lanak Udal Euskaltegiaren "Katuek bezala" (The Uski's), Biraka Dantza Eskolaren "Amets" (Gari) eta Ahotsak-en "Bihar" (Zazpi Eskale) dira eta ikastetxeen sailean La Salleko talde bi sailkatu dira azken lehiarako. Ekitaldira joateko sarre-
rak Coliseoko ohiko salmenta moduei jarraituta eros daitezke, 5 eurotan.

Herri kirolen inguruko erakusketa

GAUR EGUERDIAN INAUGURATU DUTE HERRIRIK HERRI DABILEN HERRI KIROL EN INGURUKO ERAKUSKETA EL CORTE INGLÉS-EN. Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako erakusketaren bitartez herri kirolen iragana eta oraina ezagutarazi nahi zaizkie herritarrei eta, besteak beste, kirol bakoitzean erabiltzen diren tresnak eta bestelako elementuak batu dituzte. Horrekin batera, ikasle taldeekin bisitak antolatzea da arduradunen asmoa, erakusketa ikusten duten bitartean monitore espezializatuen azalpenak entzun eta edukiak hobeto barneratu ditzaten. Inaugurazio ekitaldirako herri kirolen erakustaldia antolatu dute harrijasotzaile, trontzalari eta aizkolariekin El Corte Inglés-eko terrazan. Erakusketa, berriz, saltoki barruan dago ikusgai.



Agur Aginagako jaiak

**EGURALDIA LAGUN, JAI GIROA NAGUSI IZAN ZEN AU-
RREKO ASTEBURU OSOAN
AGINAGA ALDEAN,** San Miguel jaiaren inguruan antolatutako ekitaldiei esker. Urteroko moduan, auzoko baserriarrek ez ezik, egitarauak erakarritako

beste lagun mordoak ere izan zuen jaiarekin bat egiteko aukera. Zapatuko gauean Kupela taldekoen musika izan zen protagonista eta domekan, meza berezia eta bazkariarekin batera, arratsaldeko idi-probek batu zuten jende gehien.

Makrobiotikako taldea itxi da

SIMONE BEGIRISTAINEN URRIAN EMANGO DUEN MAKROBIOTIKA IKASTAROA ARRAKASTA HANDIA IZAN DU eta hamaseiko taldea osatu denez, ez da inolr gehiago hartuko. ...eta kitto! Euskara Elkarteko arduradunen berbetan, bigarren ikastaro bat antolatzeko aukera izan daiteke, eta horrela gertatzen bada, emango dute horren berri. Gogoan izan ikastaroa urriaren 19, 21, 26 eta 28an izango dela Portaleko sukaldean, arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak arte, gutxi gorabehera.

laburrak

Liburutegia itxita domekan

Hilaren 10ean, domekan, liburutegia itxita egongo dela adierazi dute bertako arduradunek. Hala ere, eguneroko prentsa irakurri ahal izateko edo ikasten egoteko langela erabiltzeko moduan izango da.

Coaching ikastaroa

Datorren astean, martitzena jai eguna dela-eta, emakumeendako coaching ikastarorik ez da emango. Pagatxatik azaldu dugutenez, hurrengo saioa hilaren 25ean izango da.

Yoga klasikoa

Yoga klasikoa ezagutzera emateko asmoarekin 14-18 urte bitarteko taldea sortu nahi du Iruñe Yogak. Klaseak barixaku arratsaldean izango lirateke, ordubeteko iraupenarekin eta doan. Interesa dutenek 666874555 telefono zenbakira deitu dezakete edo zuzenean bertara joan (Txaltxa Zelai, 10).

Bisita gidatua

Eibarko Artisten Elkarteko bazkide eta lagunendako bidaia antolatu du Alcalá de Henares-era, urriaren 15ean irten eta 17an buelta egiteko. Lagun bakoitzak 180 euro ordaindu beharko ditu eta izena emateko 943207703 edo 943203037 telefono zenbakira deitu daiteke.

Idi-probek osatu zuten egitarauaren azken ekitaldia. / **MAIALEN BELAUSTEGI**






Orozko omendua Elena Martín-ekin. / SILVIA HERNÁNDEZ

Orozko tenoreari omenaldia

HILAREN 26-AN ABIATUKO DA EIBARKO XVIII. MUSIKALDIA ETA, URTEROKO MODUAN, horren harira prestatu duten egitarauari jarraituta, hainbat herrialdetatik etorritako abesbatzak izango ditugu herrian. Hungaria, Suitza eta Bulgariako taldeekin batera, Kammerphilharmonia euskal ganbera-orkestrak eta Asturiaseko haur-abiesbatza batek hartuko dute parte aurtengo Musikaldian, eta Coliseo antzokiak hartuko dituen emanaldi horietarako sarrerak laster ipiniko dituzte salgai, ohiko bideei jarraituta. Aurtengo egitarauan, bestalde, bada berritasunik, ohiko kontzertuez gain beste ekitaldi berezi bat ere jaso dute-lako: iazko abenduan hil zen Jose Ramon Orozko Eibarko tenoreari omenaldia eskainiko zaio, herriko musika taldeen parte-hartzea izango duen jaialdian. Azaroaren 5ean izango da ekitaldia, 20.30etan eta sarrerak 5 eurotan ipiniko dituzte salgai.



UEU-ren udazkenerako ikastaro eskaintza zabala

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK UDAZKENERAKO PRESTATU DUEN IKASTARO ES-KAINTZA AURKEZTU ZUTEN

eguztenez Ane Sarasua UEUKo kudeatzaile nagusiak eta Mari Karmen Menika ikastetxe nagusiko arduradunak. Urria eta azaroa bitartean zortzi ikastaro emango dira Markeskuan, beti ere etengabeko prestakuntza

helburu dutela: *“Eibarko eta Debarrenako erreferentzia akademikoa izan nahi du UEUK eta horretarako erabaki zen Markeskuan eskaintza propioaren atala zabaltzea”*. Bestalde, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoz, ikastaroen iraupena eta ordutegiak bereziki zaindu dituzte antolatzaileek: *“Ikastaro laburrak dira, 10 eta 30 ordu bitartekoak eta batzuk arratsaldez eta zapatu goizetan emango dira”*.

8 ikastaro Markeskuan

Informatika eta teknologia berriak atalekoak “Ordenagailuz lagundutako itzulpena, Wordfast 5 aurreratua”, “Moodle-ren oinarriko erabilera” eta “HTML5: estandarra egungo weberra egokitzen” dira. Giza eta gizarte-gaiak atalekoak “Euskara batuaren bigarren jaitza



Ane Sarasua eta Mari Karmen Menika eguztenezko aurkezpenean.

saiakerarako edukiak”, “Harreman harmonikoa izateko komunikazio trebetasunak: I. modulua”, “Ipuinen funtzio pedagogikoa: balioak transmititzeko eta harremanak lantzeko” eta “Tantra: maitasunaren atea”. Eta, eskaintza biribiltzeko, osasun arloari lotutako “Aromaterapia. Sendabelar usaintsuak” izenburukoa emango dute. Izena emateko epea zabalik dago eta epe hori ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko edo matrikula egin nahi duenak bi bide ditu eskura: www.ueu.org helbidea eta 943 82 14 26 telefonoa. Bestalde, betiko moduan Eibarko udalak bertan erroldatutako herritarrentzat diru-laguntzak emango ditu eta, horrez gain, prezio bereziak daude ikasle, langabe eta jubilatuentzat.

Josefa de Dios-ek irabazi du enpanada lehiaketa

ZAPATUAN EGUN OSOAN OSPATU ZEN ENPANADAREN INGURUKO JAIA URKIZUKO PARKEAN, As Burgas Galiziako Kultur Etxeak antolatutako enpanada-lehiaketaren harira. Bigarren edizio honetan ere, iazko moduan, parte hartu zuten 11 enpanaden artean epaimahaiak sari nagusirako aukeratu zuena Josefa de Dios-ek egin-dakoa izan zen. Bigarren saria Josetxo Moyak eraman zuen eta hirugarrena, berriz, Nati

Marín-entzat izan zen. Lehiaketatik kanpora ere egun osoan egon zen zer egin: besteak beste Os Galaicos taldekoek Galiziako musikarekin alaitu zuten eguna eta umeentzat hainbat jolas eta tailer antolatu zituzten.



Irabazleak jasotako sariekin zapatuko ekitaldian. / MAIALEN BELAUSTEGI

Umeendako antzezkiunak bueltan


NAT NUS DANTZA TALDEAREN “MOMENTARI” IKUSKIZUNAREKIN GOZATZEKO AUKERA izango da urriaren 16an Coliseoan (sarrerak 4 eurotan salgai). Claudia Moresok eta Toni Mirak zuzenduta, dantza eta ikuskizuna batzen dituen ikuskizunak Tari izeneko pertsonaia bitxiaren gorabeherak azalduko dizkie ikusleei.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, HIART, atzo urtebete egin zendualako. Muxu haundi bat, etxeko guztien partez.




Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, domekan bederatzirte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, MARINA Ereña Ogiza, domekan hamar urte egingo dozuz-eta. Muxu bat famelix guztien partez.



Zorionak, IBANE, hillaen 14an zortzirte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MAIDER, martitzenian zazpirte bete zenduazelako. Muxu bat etxekuen partetik.



Zorionak, ANE, atzo urte bi egin zenduaz-eta. Muxu bat eta segi holan, etxeko guztion bizipoza izaten.



Zorionak, IBONE eta ANDER Ereña Puente, martitzenian sei urte egin zenduen-eta. Muxu bat etxekuen partez.

JAOTAKOAK

- Manex Iruretagoiena Fernández. 2010-IX-25.
- Mikel Lapeyra Ibarra. 2010-IX-26.
- Melanie Adamaris Vivar Villalva. 2010-X-1.
- Markel López González. 2010-X-1.

HILDAKOAK

- Antonia Fernández Peña. 86 urte. 2010-IX-30.
- Marcelino Areitioaurtena Arrizabalaga. 91 urte. 2010-X-2.
- Concepción Bereziartua Aranberri. 87 urte. 2010-X-2.
- Paula Aliende Torrecilla. 86 urte. 2010-X-3.
- Ramiro Moreno Collado. 62 urte. 2010-X-4.

zinea Coliseoan

8an, 22.30etan; 9an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan; 10an, 17.00 eta 19.30etan; 11n, 20.30etan; 12an, 19.30etan.

"Híncame el diente"

Zuzendaria: Jason Friedberg
Aktoreak: Matt Lanter, Jenn Proske, Emily Brobst, Krystal Mayo



Becca nerabea zalantzan dago mutil biren artean. Black Eyed Peas-en antza duten banpiroen familia batekin afalduko du eta, hortik bizirik irtena, institutoko dantza gaua prestatu beharko du, aitaren kontrolpetik ihesi egiten saiatzen den bitartean...

"Cartas a Julieta"

Zuzendaria: Woody Allen
Aktoreak: Amanda Seyfried, Vanessa Redgrave, Gael G^a Bernal, Franco Nero



Sophie eta Victorrek Italian oporretan dagoen bikotea osatzen dute eta "Julietari zuzendua" dioen eskutitza jasoko dute. Eskutitz hori Lorenzo izeneko gizona bilatzen diharduen Clairek idatzi du. Sophie gizon horren bila abiatuko da Toscanan zehar.

"Gru, mi villano favorito"

Zuzendaria: Chris Renaud
Aktoreak: Jason Segel, Steve Carell, Kristen Wig, Ken Jeong



Luxuzko urbanizazio bateko biztanleek euren buruari galdetzen diote zer egiten duen bertan lagata ematen duen etxe zikin batek. Ez dakite bere ejerzito txikiarekin ilargia lapurtu nahi duen Gru-ren ezkutalekua dela. Hiru umezurtzek aitatzat hartu nahiko dute.

3D

horoskopoa

ARIES

Konturatuko zinen ligatzeko erabiltzen dituzun teknikak ez dutela funtzionatzen, ezta? Naturaltasunez jokatzu gero, hobe.

TAURUS

Hanka barruraino sartu eta orain korapilotik nola atera ez dakizula zabilta. Lehen pausoa barkamena eskatzea izan daiteke agian.

GEMINI

Gezurretan zabilta eta harrapatuko zaituzte. Txarrena da gezurek ez dutela arazoa konponduko; beraz, egiozu aurre arazoari.

CANCER

Noiz arte egongo zara begira eta zeozer esatera ausartu barik? Baztertu lotsak eta hurbildu zaitze, bera ere konturatuta dago-eta.

LEO

Bizitza jolasa moduan hartzen duzu. Ondo dago umorez hartzea, baina komeni ez diren uneetan umekeria askotxo egiten dituzu.

VIRGO

Orrazkera aldatu duzunik, beste bat ematen duzu. Ez galdu zure nortasuna modako orrazkera eramatearren.

LIBRA

Gauzak behin esanda nahikoa da! Ea ikasten duzun behingoz! Gauzak errepikatzearen ez dizute kasu gehiago egingo; ez izan astuna.

SCORPIUS

Koadrilako liderra zara, saltza guztietako perrexila, beti planak egin eta antolatze prest. Kontuz: ez hartu ardura larregi zure gain.

SAGITTARIUS

Agenda, post- it, ... Nahi duzuna erabili, baina egizu zerbait. Esan orduko, egin behar duzuna ahazten zaizu-eta. Halakorik ikusi behar!

CAPRICORNIUS

Moda jarraitzea gustatzen zaizu, baina ezin duzu danetik izan. Dirua aurreztu eta behar den moduan administratu beharko zenuke.

AQUARIUS

Ezin duzu pertsona hori ahaztu, ezta? Agian behar zenean bialdu ez zenuen SMS hura bidaltzeko unea iritsi zaizu dagoeneko.

PISCIS

Zu bai, zu! Danentzat eta danerako denbora izaten duzu beti. Edozer dela ere, eskertzekoa da zu moduko laguna inguruan izatea.

Zapatua 9

KONTZERTUA

22.30.- Los Reyes del KO + Petti. Espaloia Kafe Antzokian (Elgetan).



Martitzena 12

BTT MARTXA

09.00.- II. Debabarrena Martxa (irteera Elgoibarko Mintxeta Kirolgunetik). Ibilbide laburra 25'49 Km, ibilbide luzea 44'87 Km. Umeendako ginkana egongo da Mintxetan.



Eguaztena 13

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

– “¿Qué deben saber madres y padres sobre las redes sociales?”.


Noiz: Urriak 19, 21, 26 eta 28an (18.00-20.00) Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 15era arte, Pegoran.

– Sorosle eta Sorospen ikastaroa.

Noiz: Urriaren 13tik aurrera, astelehenetik barixakura (19.00-21.00). DYA-ren egoitzan (Pagaegi, 5). Informazioa eta izen-ematea: 943464622 telefono zenbakian.

– Informatika ikastaroak langabetuentzat.


Informazioa eta izen-ematea: Juan San Martin Liburutegian.




ERAKUSKETAK

Zarautzen
Arte
Galerian


Donostian
Argazkilari
Elkartean





erakusketak

- Urriaren 12ra arte
"FERNANDO BEORLEGI: Gogoaren pintzelkada garratzak". Portalean.
- Urriaren 17ra arte
JOSE LUIS MARTÍNEZ-en argazki erakusketa: "Portugal". Debako Turismo Bulegoan.
- ALICIA ITURRIOZ**-en margo erakusketa. Topalekuan.



lehiaketak

- **"Sanandresak 2010 Eibarren" kartel lehiaketa.**
 Lanak aurkeztea: Urriaren 19ra arte, Pegoran.
- **San Andres bertso paper lehiaketa.**
 Informazioa eta lanak aurkeztea: Azaroaren 5era arte, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

farmaziak

- 8, barixakua**
 EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 9, zapatua**
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
 GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 10, domeka**
 EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 11, astelehena**
 EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
 GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 12, martitzena**
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
 GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 13, eguaztena**
 EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
 GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 14, eguena**
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 15, barixakua**
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara.**
 Eskeraek aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.
- **Diru-laguntzak ikasleei.**
 Eskeraek aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

		1		5	2		9	
8						5		
	5			6	1			8
1		7						
5		4				3		1
						8		2
3			7	4				2
		5						4
	4		5	1		7		

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Saratsuegin (5. solairua). 68 m². 2 logela, egongela, jantokia, sukaldea eta 2 komun. 2 garaje plaza eta 11 m²ko trastelekua. Pisuarekin Citroen C-3 opari (aukeran). 260.000 euro (negoziagarriak). Tel. 669-737751 eta 676-553108. Vanessa.
- Mutilak pisua konpartituko luke. Tel. 617-856585.
- Emakume batendako logela eskaintzen da. Pisua erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 686-286110.
- Pisua salgai Barrena kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Kalefakzioa eta igogailua. Altua eta eguzkitua. Berritua eta jantzita. Tel. 678-287400.
- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berrituta. Bizitzera sartzeko moduan. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Saratsuegin. Logela bi. Ganbara eta garaje plaza bi. 3. pisua. Argitsua. Berria, sartzeko moduan. Tel. 647-720831.

1.2. Errentan

- Mutil serioak (ikaslea) logela hartu edo pisua konpartituko luke alokairuan. Tel. 666-191152.
- Pisu baxua alokatuko nuke. Tel. 943-702421 edo 620-666446.
- Pisua hartuko nuke alokairuan, bikote batendako modukoa. Tel. 667-355646.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 659-037882.
- Gela eskaintzen da alokairuan. Tel. 610-607610.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Furgoneta VW California T4 salgai. 146.000 km. Sukalde, hozkailu eta fregaderarekin. 4 ohe plaza. Egoera onean. 13.700 euro. Tel. 671-841563.
- Scooter CSR 125 motorra salgai. 3 urtekoa. 800 euro. Tel. 630-810099 eta 617-099029.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Barrena kalean. 18 metro eta erdi. Garajes Garcia eraikinean. Tel. 686-333014.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berritua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, pintatzen jarduteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Egun osoan. Tel. 678-972690. Sisi.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 666-771151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 685-765340.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 618-175692.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimena eta autoa. Erreferentziak. Tel. 695-701753.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 15.00etatik 18.00etara. Tel. 647-044031.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 645-461600. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 696-246962.
- Emakumea eskaintzen da astelehenetik barixakura arte gauzez lan egiteko; baita asteburuetan ere. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 669-966611.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da ileapaindegirako laguntzaile. Tel. 650-280670.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-345891.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 608-886701.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduzabala. Tel. 660-073781.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da etxea garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-752142.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-037882.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko: tabernetan, pegoetan, pisuetan... Tel. 610-607610.
- Mutila eskaintzen da nagusiak (gizonezkoak) zaintzeko gauzez. Tel. 686-545884.
- Gizona eskaintzen da soldatzaile lanak egiteko. Tel. 693-950032.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo gauzez. Tel. 630-365137.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 646-369330.

4.2. Langile bila

- UGAN Klubak aerobic monitorea behar du. Curriculumak bidali F. Calbetón, 21-era edo uganklub@euskalnet.net helbidera.
- Taxi lizentzia transferitzen da, jubilazioa dela-eta. Tel. 693-937373.
- Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-801304.
- Magisteritzan graduatutako unibertsitaria behar da akademia batean laguntza-klaseak emateko. Tel. 652-763264. centrobart@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 943-744584.
- Pintorea behar da, 2. mailako ofiziala edo apendizak. Tel. 660-522587.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Gitarra eta Harmoniako klaseak ematen ditut. Tel. 647-289145.

6. Denetarik

6.1. Salgai


- Klarineta salgai. Oso egoera onean. Tel. 617-808785.
- Txori kaiola berria salgai. 61x38x52 zm. 45 euro. Tel. 686-325346.
- Ordenagailua salgai. Apple i Mac 24". 320 MB. Urte eta erdikoa. Oso egoera onean. 850 euro. Tel. 663-522433.

6.2. Eman

- Katakumea oparitzen da. Pertsonekin jolastera ohituta. Tel. 665-034269.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



ELGETA katea, 2 - ac
Tif: 600 792 127
600 791 943
adharazentroa@hotmail.com




Puntu y Aparto-ron aurroan




adhara
z e n t r o a

AKTIBITATEAK: Armony, Tai-chi, Pilates,
Ekialdeko Dantza, Haurrendako
aktibitateak (Ekialdeko Dantza eta Nin-
jutsu -Arte Martziala-), Yoga...



**AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK / AYURVEDA
TERAPIAK:** Reiki, Kinesologia, Naturopatia, Iridiologia...
IKASTARO eta TAILERRAK: Gurasoendako Eskola,
Haurrendako Masajea, Nutrizio Energetikoa...



LIBURUA:
adinik gabekoa,
eta...

"Bizi irakurri"

URRIAREN
15etik



24ra

Eibarko Liburu Azoka

UNTZAGAN

ordutegia

11.00 - 14.00

17.00 - 21.00

asteburuan

11.00 - 14.30

17.00 - 21.30

Eleberriak

%10eko deskontuak

Euskal diskagintza

Aukerako liburuak

Euskadiko Liburu Ganbarak

antolatuta eta Eusko Jaurlaritzaren

eta Eibarko Udalaren Kultura Sailek **lagunduta**

...adin
guztietarakoa

